

## **Ez hutsik egin**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1998-10-25: 3.

Demokraziak baditu, beste sistima politikoak bezala, bere ahuleziak, baina baita ahalmenik ere: batez ere herria gobernabidean sartzearen kemen iraultzailea, eta herritarrari bere agintariak hautatzeko balio berdineko boto demokratikoa.

Ba boto hau emateko eguna dugu gaur hemen.

Lau urtetik behin botatzea ez da gehiegi, gutxiegi ere bada, agian, baina lorpen handia izan da, aizu. Zenbat urte egon gara zu eta ni ez botatzeko aukerarik gabe bakarrik, boto emateko eskubidea honen faltaz kexa egiteko beldurraz ere, beldur hau izatea libre zenean eta ez koldarkeria.

Hilabeteak eta urteak joan zaizkigu, asko, gehiegi!

Bestalde, zu eta ni, bi boto, gauza gutxi gara, baina Euskal Herria osoa, zenbat denbora eduki dute mundutik at, etenda! Izurriduna bezala isolatua. Noiz izanda zure eta nere herria dena libre azken urte eta mende hauetan? Hizkuntzaren egoera kasu.

Nazio osoa borroka bizian lur honetan milaka urtetan bizi den hizkuntza erabiltzea debekatua, espetxeratua eta torturatua izanda; gaurko gobernukide espainolen ezpalekoak ziren zanpatzaileak; nolabait agintean daude oraindik, eta kanpaina honetan gu gara horientzat ofizialki diskriminatzaileak eta apurtzaileak. Ez naiz neu orain bere mailan irainak jaurtika hasiko. Badut gaurko zereginik; zuri gogorarazi nahi dizut, nonahi jaioa zarela eta euskalduna zarenez gero, gaur bihok botoa emateko eguna dugula eta ez genukeela hutsik egin behar. Hitz egin zazu botoaren bidez, eman boza zure gogoko duzunari, euskara eta Euskal Herri ihauli hau defenda eta askatu dezan. Egiarekin, gure anai-arteko tolerantzian, irekitasunean, baina fermuki. Eman dezaiozun elkarri pakea, bai, baina badakigu bi aldeak emandakoa izan behar duela, ez betiko gure ameto ematea.

Loak hartu gabe, beraz!

Ezin dugu gaur hutsik egin.